

KOSTUAK



EGILEAK:

Ekaitz Salaberria

Mikel Moriana

Irati Ugalde

Izar Susperregi

Argi dago enpresa batekin batera kostu batzuk datozela, eta ondorioz ordainketa mota ezberdinak. enpresa irekitzean hartutako erabaki ezberdinek kostu batzuk sortzen dituzte eta kontua hartu beharreko alderdiak dira, gerora begira, enpresan eragina izango duten alderdiak direlako. Kostu mota guztiak ez dira berdinak eta enpresan izango duten eragina ere desberdina izango da. Kostu mota hauek sei multzotan banatzen dira.

Lehenengo kostu mota, kostu finkoak dira, enpresa guztietan beti azaltzen diren kostua. Hauek, produkzio kantitatearekin zer ikusirik ez duten kostuak dira. Beti berdinak izango diren kostuak, soldata edota alokairuak hala nola. Ikusten da horrelako kostuak beti izango ditugula gure enpresan eta beharrezkoa da, horretarako diru bat gordea izatea, bai edo bai ordaindu beharreko kostuak direlako.

Bigarren kostuak, kostu aldakorak dira, eta aurrekoan ez bezala hauetan produkzioak eragin zuzena du, hau da, ekoiztutako produkzioaren arabera direnak dira. Beraz hilabetero kostu hauek ezberdinak izango dira, eta seguruenik irabaziekin ordainduko ditugu, irabaziak ere ezberdinak izango direlako.

Hirugarren kostu mota, zabalkunde edo hedadura ekonomiak, hauek, baliabideekin dute lotura, hau da, baliabide ezberdinak erabiltzea produktu berdina egiteko, eta alderantziz, baliabide berdina erabiltzea produktu ezberdinak egiteko. Argi da, baliabide bakar bat erabiltzeko aukera baldin badugu kostua txikiagoa izango dela, makinaria gutxiago erabili beharko dugulako besteak beste. Beraz, aukera baldin badugu ahalik eta produktu gehien ekoizten lagunduko diguten baliabidez izaten saiatuko gara.

Laugarren kostua, eskala ekonomiak dira, hau produzitutako unitateen kantitatea handitzean eta kostuen murrizketa lortzen denean ematen da. Beraz, kontuan izan behar da zenbatekoak izango diren salmentak eta ondorioz, zenbateko ekoizpena egin behar den. Bestela kostu asko eta irabazi gutxi izateko aukera dagoelako eta ondorioz galeraz izateko aukera dagoelako.

Azkeneko bi kostuek bezeroekin zerikusia dute, hau da, salmentarekin. Beraz, irabazi bezala ere sailka daitezke.

Bostgarren kostu mota, Low-cost kostuak dira, eta hau prezio baxuak ezartzean datza, bezero gehiago irabazteko asmoarekin, baina honek ondorio batzuk ekartzen ditu, eta ondorioetako bat seigarren kostua bezala ezagutzen dela da: kostuen egitura. Hala ere, kostu mota hau ez dugu uste asko erabiliko dugunik, beherapenetan edo horrela ez bada, gure produktuek prezio jakin batzuk izango dituztelako.

Aipatu bezala, azken kostuak kostuen egiturak dira, hau da, enpresa batzuek prezio baxuengatik, beste batzuk beraien kalitateagatik nabarmentzea. Irizpide honen arabera, bi enpresa mota banatzen dira. Alde batetik, kostuak bultzatutako negozio ereduak, hauek kostuak minimizatzea helburu duen enpresa da. Bestetik, balioan oinarritutako negozio ereduak daude, non bertan garrantzitsuena bezeroari eskaintzen zaion produkzioan dagoen, ez kostuetan. Gure kasuan bien arteko balantza bat egiten saiatuko gara, hau da, kalitate oneko produktuak salduko ditugu, baina prezio altuak erabili gabe, bezeroak kontua hartuta.